

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua arrakastatsua izateko eta enpresa emaitza onak izan dezan, funtsezko baliabide batzuk bilatuko ditugu. Lau eremuetan banaturik: fisikoetan, intelektualetan, giza-baliabideetan eta finantzalietan.

BALIABIDE FISIKOAK:

Gure enpresa fisikoa edo lan eremua osatzen duten baliabideak dira. Autobusen fabrikazioa ez dugu guk burutuko, baina haien diseinu fisikoa gure esku egongo da. Tonu moreetan oinarritutako dekorazioa eramango du, zuziz "Bakarrik ere etxera iritsi nahi dut" apainduriko esaldiarekin. Ez dugu denda fisikorik izango baina gure plangintzak eta ideiak garatzeko lokal txiki bat beharko dugu. Hemen bezeroentzako arreta taldea egongo da; bertan, **BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK:** (ordenagailuak, telefonoak...) izango ditugu, gure zerbitzuak eskaintzeko. Bezeroei informazioa ailegatzeko erabiliko ditugun baliabideak ere han gordeko ditugu.

BALIABIDE INTELEKTUALAK:

Baliabide honeri erreparatuz, gure enpresa patente eta egile eskubideak izango ditu hasiera batean gure proiektuaren ideia inork ez kopiatzeko. Gure proiektuaren arlo guztietako dokumentuetan partaide guztien sinadurak agertuko dira, guztien konpromisua ziurtatzeko.

GIZA-BALIABIDEAK:

Baliabide intelektualak autobusa sortzeko disenua eta ahalmen sortzaile, informatikari buruzko informazioa, hala nola bezeroentzako arreta, eta gaur egungo gizartearen eragozpenei aurre egitea izango dira.

Guztiok parte artuko dugu enpresaren eginbeharrekoetan eta bakoitzaren kualitateak kontuan hartuta, bakoitzak lan-sektore batean lan egingo du. Cata disenua planteatu eta luneren laguntzarekin merkaturatuko dute. Yanahina eta Iune administratzaile lanetan arituko dira, diru kontuekin, eta Iratxe eta Irati aplikazioa eramango dute, azken berriak taldekideei argitaratuz. Guztion konpromisoa funtsezkoa izango da proiektua aurrera eramateko.

FINANTZA BALIABIDEAK:

Enpresa aurrera eraman ahal izateko dirua behar izango dugu, horretarako gure aurrezkiak erabiliko ditugu. Honez gain, enpresarekin eta dakar proiektuarekin hasi baino lehen, udaletxearekin eta herriarekin bilerak antolatuko ditugu, iritziak, proposamenak etab. jasoko ditugu eta azkenik, honekin guztiarekin, akzioen salmentatik lortuko dugu gure enpresa finantzatzeko dirua.

Akzioak gureak izango dira, aurrezkiak bezala.

Baliabideen garrantzia nabarmena da gure enpresa aurrera eramatea posible izateko. Zer eta nola montatuko dugun jakiteko, dirua enpresa sortzeko nondik aterako dugun zehazteko, bezeroekin izango dugun harremana adierazteko, proiektuaren jabetasuna argi usteko eta zerbitzuak eskaintzeko erabiliko dugun materiala jakiteko.